

TXERTO-ERREAKZIOA  
REACCIÓN VACUNAL

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **TXERTO-ERREAKZIOA**.

**ZER DA?**

Txerto-erreakzio lokala injekzioa jarri den lekuan agertzen den inflamazioa da.

Alde hori gorri eta bero jartzen da, eta umeak mina dauka; beraz, txertoa ipurmasailean edo izterrean jarri badiote, beharbada ez du ibili nahi izango. Hau txertaketaren ondorengo orduetan gertatzen da. Erreakzio hau edozein txertorekin ager daiteke.

BCG-ren kasuan (Tuberkulosiaren aurkakoa), 2-6 astetara lesio txikia agertzen da injekzioa eman den aldean; ematen du infektatuta dagoela, zornez, eta ultzera sortu ahal da. Horrekin batera, gongoila agertu ohi da besape horretan. Pare bat hilabetez luza daiteke, eta berez sendatzen da, orbain txikia utzita. Hau txerto honen ohiko erreakzioa da.

**ZER EGIN?**

Txerto baten erreakzio lokala tratatzeko, hauxe baino ez da egin behar: umeari molestiak kendu behar zaizkio, analgesikoen bidez (paracetamola edo ibuprofenoa adibidez), eta ingurune hartan konpresa busti eta hotzak jarri behar zaizkio.

Inflamazio hori egun batean edo bitan desagertzen da, berez, denboraldi batean koskortxo geratu ahal zaion arren.

**ZERI JARRI BEHAR DIOZU ARRETA?**

Ikusten baduzu erreakzio honek ohi baino gehiago irauten duela, umeak min handia daukala, zornea, sukar altua, goibel dagoela edo kezka sortzen dizun zerbait badago, jo ezazu osasun-zentrora edo larrialdietako zerbitzura, umeari beste azterketa bat egin diezaiotene.

Su hijo ha sido diagnosticado de **REACCION VACUNAL**, por los síntomas que presenta en este momento.

**¿QUE ES?**

La reacción vacunal local es una inflamación que aparece en el lugar en que se ha puesto la inyección.

La zona se pone roja y caliente y al niño le duele, de forma que si se le ha administrado la vacuna en la nalga o el muslo se puede negar a caminar. Esto ocurre en las horas siguientes a la vacunación. Esta reacción puede aparecer con cualquier vacuna.

En el caso de la BCG (contra la Tuberculosis) suele aparecer a las 2-6 semanas una pequeña lesión en la zona de inyección que da la sensación de estar infectada, con pus, y que puede llegar a ulcerarse. Se suele acompañar de la aparición de un ganglio en esa axila. Esto puede durar un par de meses, curando espontáneamente, dejando una pequeña cicatriz. Esto es una reacción normal de esta vacuna.

**¿QUE HACER?**

El tratamiento de una reacción local de una vacuna consiste únicamente en quitar las molestias al niño con analgésicos, del tipo del paracetamol o ibuprofeno, y aplicar compresas húmedas y frías en la zona.

Esta inflamación cede espontáneamente en uno o dos días, aunque puede quedar un bullo durante cierto tiempo.

**¿QUE DEBE VIGILAR?**

Si observa que esta reacción dura más de lo esperado, que el niño tiene mucho dolor, pus, fiebre elevada, decaimiento, o cualquier otra cosa que le preocupe, deberá acudir a su Centro de Salud o al Servicio de urgencias ya que su hijo precisará una nueva valoración.